

Getxo >MEETING<



Azaroak 26 **Zure bezeroentzat 2021 zoriotsu bat prestatzeko oinarriak** **(nagikeriak alde batera utzita).**

Urtearen amaieran bi enpresa mota daude, zeinekin identifikatzen duzu zurea?

- Urtero bezeroei zerbait bidaltzea pentsatu baina gero ezertxo ere egiten ez dutenak.
- Urtero gauza bera egiten dutenak (eta aurten ere aldatuko ez dutenak).
- Gabonak zoriontzeko ezer berezirik esaten ez duen mezu generiko bat bidaltzen dutenak, ezer berezirik esaten ez duen irudi generiko batez lagunduta. (Spoilerra: jasotzen dutenek berehala ezabatuko dute)
- Bezeroek izena, abizenak eta emozioak dituztela eta haiekin konektatzeko une garrantzitsua dela ulertzeko tarte bat hartzen dutenak.

Zorion-adierazpen horren oinarri gisa erabili dezakezun informazioa lortzeko moduari buruz aritu gara Getxo Meeting honetan.

1. Zeintzuk dira zure markaren balioak? (konfiantzaz, hurbiltasunaz eta profesionaltasunaz gain, zer gehiago?)
2. Zer konpontzen du zuk eskaintzen duzun zerbitzuak? Ez gara ezaugarriari buruz ari, baizik eta zure zerbitzuak erabiltzaileari egiten dion onurari buruz.
3. Nor da nire bezeroa eta, desberdina izanez gero, nor da zure publiko erabiltzailea?

4. Irudikatu itzazu zure zerbitzua edo produktua erosten duten pertsona horiek. Zer aldatu da pandemian? Zer muga sortu dira eta zer beste aukera berri zabaldu dira? Esaterako, dagoeneko ezin dute urrutira bidaiatu, baina gertuko txokoak ezagutzen ari dira. Edo lantaldearekin harremana galdu dute baina laneko arropa malgutu dute. Zure sektorearekin zerikusia duen zerbait.
5. Zeintzuk dira, oro har, urte berriari lotutako balioak? Eta urtearen garai honi lotutakoak?

Zerrenda honetako erantzunetako batzuk batzea abiapuntu interesgarria izan daiteke.

Gakoak:

- Zure hartzaileenganako enpatia. Umorea eta ulermena erabil ditzakezu, eta egoera zaila izan arren, saia zaitez emozio positiboak transmititzen.
- Hauteman itzazu zure publikoaren beharrian emozionalak.
- Ez da komeni zure produktuak saltzeko aprobetxatzea, hobe da konektatzea eta salmenta beste une baterako uztea.